

(!) Oharra:

*jabego intelektualaren inguruko legediak irudien erabilera galerazten digu.*

*Hori dela eta, dokumentu honek ilustraziorik ez darama.*

*Irudiak ikusteko, ikur grisaren gainean klikatu.*

# DISEINU GRAFIKOA PUBLIZITATEAN

## 04. TIPOGRAFIA

Aspaldidanik ohituak egon arren, oso gauza bitxia da pentsamenduak finkatzeko garatu dugun ahalmena: idazkera, alegia. Honetarako kode berezia asmatu behar izan dugu: alfabetoa. Hitzak, beraz, marraztu egiten dugu.

Eskuz egindako inskripzioei “idazketa” esaten diogu; inprenta tartean denean, berriz, “tipografia”.

Tipografia letrak diseinatzeko artea litzateke, bai eta berauen antolakuntza eta erabilerari dagozkien kontu guztiak ere. Tipografiak bilatzen duen helburua testuak modu egokian konposatzea litzateke, modu erraz, garbi eta atseginean irakur daitezzen. Beraz, lehenengo eta behin, tipografiak hartzen duen betebeharra zera da: mezuak modu eraginkorran komunikatzea.

Dena den, letra-tipo desberdinen alde estetikoak badu garrantzi handia. Hizkien formak testuaren edukia zeharo baldintza dezake. Estiloak konnotazio potere handia dauka. Komunikazioa behar bezalakoa izan dadin, letra-tipo egokiari eutsi beharko zaio. Baina, nola aukeratu hainbeste tipoen artean?

*“Tipoen aurpegia gizakion bezalakoa da;  
bakoitzak bere espresio pertsonala du.”<sup>9</sup>*

J.L. Frazier

### 04.1 SAILKAPEN BAT

Iturri desberdinak sailkatzeko hainbat saiakera egin da, tipoen jatorri historikoan zein ezaugarri formaletan oinarrituz. Laburbilduz, bi talde nagusitara murriztu gitezke: letra serifadunak eta letra linealak. Hau da, bukaeran "oina" dutenak eta bukaera soila dutenak.

---

<sup>9</sup> Aipuaren iturria: [bonfx.com](http://bonfx.com)

# Aa | Aa

> Hona mota nagusi biak: *Times* (serifa) eta *Helvetica* (lineala).

Ez dago sailkapen perfekturik, baina 1954an Maximilian Voxek egin zuena abiapuntutzat har dezakegu. Moldaketa txiki batzuk eginda, hemen duzue sailkapenaren bederatzi familia nagusiak:



> **Maximilian Vox.** Sailkapen tipografikoa. 1954.  
Arrasto formaletan garatzen diren aldaketek historikoki sailkatzeko gakoa ematen dute.

## Serifa

Letra serifadunekin hasiko gara, bukaeran errematea dutenekin, alegia. Tradizio latino garbienetik abiatzen dira. Ondoren, forma astunagoa garatuko dute, publizitate lana hobeki betetzearren. Hona bereiztu ditugun hiru taldeak:

1. ERROMATAR KLASIKOAK (Voxen sailkapeneko “Antique”, “Garde” eta “Transiziokoak” bateratuz).

Adibidez: Centaur, Garamond, Bembo, Caslon, Baskerville, Times New Roman, etab.

**Aae1** Garamond SSK. 1532.  
 ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ  
 abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Izpiritu klasikoena errepresentatzen duen taldea dugu, Italiar Errenazimenduko idazkera borobila aitzindari hartzen dutelarik. Tipo serifadunak dira, masta luzekoak eta marraren lodiera gradualki aldatzen zaie trazo bertikaletatik horizontaletara.

2. DIDONE (“Erromatar Neoklasikoak” edo “Modernoak”)

Adibidez: Didot, Bodoni, Walbaum, etab.

**Aae1** Bodoni. 1811.  
 ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ  
 abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Tipo hauek oso forma estilizatua dute, marra fin eta lodien arteko kontraste handia erakusten dutelarik. Ez dute dagoeneko lumaz idatzitako letrak imitatzen. Tipografiak berezko dotorezia bilatu eta aurkitzen du. Igortzen

duten argitasun sentsazioak garaiko ilustrazioaren izpiritua ederki errepresentatzen du.

### 3. EGIPZIARRAK (“Mekanak” edo “Slab-Serif”)

Adibidez: Antique, Egyptian, Clarendon, Memphis, Rockwell, Serifa, Calvert, etab.

**Aae1** Clarendon. 1845.

**ABCDEFGHIJKLMN OPQRSTUVWXYZ**  
**abcdefghijklmnopqrstu vwxyz**

Talde honen ezaugarriak deigarriena serifaren lodiera eta forma laukia da. Iturri hauek titularrak konposatzeko izan ziren asmatuak eta, orokorrean, bestelako testu luzeetarako ez dira oso egokiak.

### Linealak

Serifadunen parean letra linealak ditugu. Beste hizkuntzetan "Sans Serif", "Gothic" edo "palo seco" izendatuko dira. Letra mota hau XIX mendeko industrializazio garaian sortu zen. Izan ere, inprentetan ez ziren liburuak bakarrik inprimatzen, kartelak, foiletoak, egunkariak eta abar luzea ere bai. Pieza publizitario hauek letra mota berria eskatzen zuten. Printzipioz, letra lineala ez omen da serifaduna bezain irakurterraza, baina merezi duen modernitate ikutua ekartzen dute.

Linealen artean hiru talde nagusi bereiztuko dugu: groteskoak, geometrikoak eta humanistikoak.

### 4. LINEAL GROTESKOAK (“Neo-groteskoak” barne)

Adibidez: Akzidenz Grotesk, Franklin Gothic, News Gothic, Trade Gothic, Folio, Helvetica, Univers, etab.

**Aae1** Helvetica. 1957.

**ABCDEFGHIJKLMN OPQRSTUVWXYZ**  
**abcdefghijklmnopqrstu vwxyz**

Linealen eredu klasikoa osatzen dute. Gehiegikeriarik gabekoak. Mugimendu Modernoaren tipografia dugu: serioa, garbia eta orekatua. Hotz samarra, agian, baina dotorea eta irakurgarria oso.

## 5. LINEAL GEOMETRIKOAK

Adibidez: Futura, Kabel, Eurostile, Avant Garde, etab.

**Aae1** Futura. 1928.  
 ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ  
 abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Figura geometrikoetan oinarritutako tipoak dira, estilizatuak eta arrazionalak. Testu luzetarako gogor samarrak eta nekagarriak, baina.

## 6. LINEAL HUMANISTIKOAK

Adibidez: Optima, Oficina Sans, Rotis, Frutiger... Ofizialki, Gill Sans ere bai, letra xehean geometriko samarra izan arren.

**Aae1** Frutiger. 1980.  
 ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ  
 abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Neogroteskoaren aurrerakuntzak mantentzen duen taldea da, baina forma atseginagoak erakutsiz. Epeltasuna ekartzen dute.

### Letra apaingarriak

Ondorengo iturri hauek askoz deigarriagoak suertatzen dira. Batzuetan, behar baino gehiago. Ezin edonon eta edonola erabili. Egokiak diren ala ez diren diseinuten tonuak markatuko du.

## 7. KALIGRAFIKOAK ("Script" edo "idazkera-tipoak").

Adibidez: Snell Roundhand, Quill Script, etab.

*Aae1* Snell Roundhand Script. 1965.  
*ABCDEFGHIJKLMNO PQRSTU*  
*abcdefghijklmnopqrstuvwxyz*

XVIII mendeko esku-idazketan oinarritutako tipoak dira. Dotoreak, baina oso atzerakoiak. Kapitular gisa erabiliz gero, bestelako tipoekin konbina daitezke. Dena den, ez dira hitz osoak letra larriaz idaztea gomendatzen:

errekargatuegi geratzeaz gain, idazkeraren jatorriari muzin egitea litzateke. Izan ere, eskuzko idazkera jatorra letra xehea dugu.

## 8. ERROTULAZIO-TIPOAK

Adibidez: Marker Felt, Scrawlin, Mistral, Comic Sans, etab.



Eguneko esku-idazketaren trazak hartzen dituzten tipoak dira. Elkarri lotu gabeko letrak dira normalean. Itxura informal eta kaletarra erakusten dute.

## 9. FANTASIAZKOAK ("Apaindurazko tipoak")

Adibidez: Apollo, Blockhead, Elektriz eta interneten dohan jeitsi daiteken gehiengoa.



Soilik izenburutarako balio duten letra-tipoak dira. Tamainu handietan erabiliak izateko eginak dira. Estetikaz kargatutako iturriak dira, oso deigarriak eta sugestioaz beteta. Oso estilo anitzekoak aurki daitezke. Askotan, letra larria besterik ez daukate ("Caps").

## 04.2 IZENBURUA / TESTU XEHEA

Hizki guztiak dira hizki. Baina danak ez dute nolana hiko funtzioa betetzeko balio. Batzuk izenburuetan ongi moldatzen dira, testu luzeetarako onargarriak izan gabe. Beste tipo batzuek, ordea, irakurgarritasun guztiz eroso eskeintzen dute testu luzeetan, nahiz eta izenburuetarako oso deigarriak izan ez.

### Titularrak

Hau dela eta, letra tipoak funtzioaren arabera aukeratuko ditugu. Izenburuetan nahi bezalako letra dekoratiboak erabil ditzazkegu, gaiarentzako aproposak izatearen baldintzapean. Askotan, enkargu bakoitzak estetika berezia eskatzen du. Hori dela eta, egokien iruditzen zaigun tipoa internetetik jeitsi dezakegu, gure diseinuan beren-beregi erabiltzeko. Lizenzia libreko iturri mordoa eskura dugu.

Tamainu handietan agertuko direnez, euren formen ñabardura guztiak ongi ikusiko zaizkio. Letra apaingarriek tamainu handia eskatzen dute.



> **Reynold Brown.** *Ben-Hur* filmearen posterra. 1959.

Kasu honetan, izenburua posterraren motiboa bera da: testua eta irudia gauza bera da. Hau dela eta, hizkiek zama estetiko handiaz karga daitezke. Gainontzeko testuak, berriz, iturri arruntagotan agertzen dira.



> *Super Fly* filmearen publizitatea. 1972.

Blaxploitation filme honen posterrak oso garbi banatzen du testuen tratamendua: fantasiako izenburua, eta gainontzekoak letra tipo funtzionalan.

Zenbait kasutan, izenburuek irudiaren funtzioa ordezkatu dute. Begirada harrapatzeko "amuaren" funtzioa beteko dute. Hau da, argazkiak bezala, bere itxura estetikoa gure begirada erakartzeko erabiliko da.

### Testu luzea

Parrafo luzeetarako letra tipo diskretuak hautatzea merezi digu. Baita tamainu txikiko testuetarako ere. Kasu hauetan irakurgarritasuna bermatu behar dugu. Tipo errekaratuen ornidura zama besterik ez litzateke izango.



> **Lippa Pearce.** *Infantry*, salaketa kartela. 2007.

Ikus daiteken bezala, itur klasikoekin indar handiko konposizioak lor daitezke. Kartel honetako tipografia lineal xume-xumea da.

Normalean, dozena bat tipo klasikorekin nahiko izaten dugu edozein motatako enkarguari aurre egiteko. Bilaketa nekagarriagoa ekiditzeko balio zaizuen zerrenda osatzea merezi dizue. Hona proposamen anitza zein fidagarria:

- **Serifadunen artean**, esate baterako: Garamond, Baskerville, Times New Roman, Rotis Serif edota Georgia.

- **Linealen artean**: Univers, Helvetica, Futura, Gill Sans, Optima, Rotis Semi Sans, Oficina sans edota Frutiger.